

"Maldan gora" argazkia da XVI.edizioko irabazlea

2017/06/19

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Kirol Zerbitzuak antolatutako XVI. argazki lehiaketa Markel Bazanbidek irabazi du. Guztira 14 partaide eta 31 argazki aurkeztu dira edizio honetan.

Aurtengo gaia "jarduera fisikoa eta emozioak" izan da eta lan bikainak ikusi ditugu. Hauek izan dira epaimahaiak "maldan gora" argazkia aukeratu izanaren arrazoiak:

Irudiari dagokionean, "informazio asko ematen duen irudia da" eta "konposizio aldetik pentsatua" dagoela esan du epaimahaiak. Aspektu teknikoan, "angulazio kontrapikatua" erabili dela argudiatu du. Hau da "txirrindulari pelotoi bat ikusten dugu eta alboetan zaletuak txirrindulariei animoak ematen". Gainera, "jendeak sortzen duen lerro diagonalak dinamismoa ematen dio irudiari" eta irudia "koloretsua eta alaia" izatea ere positiboki baloratu da. Bestalde, edizio honetako gaia "jarduera fisikoa eta emozioak" isaltzen jakin duela esan du. "Txirrindularien esfortzua nabaria da eta ikuslearen animoek emozioz betetzen du argazkia". Argumentazioa galdera batekin amaitu nahi izan du: "zer izango litzateke txirrindularitza jendearen babes eta txalorik gabe?" Lehiaketako irabazleak 100€ poltsikoratzeaz gain, datorren ikasturtean Kirol Zerbitzuko egutegian ikusiko du bere lana.

Honenbestez, Kirol Zerbitzutik eskerrak eman nahi dizkizuegu partaide guztioi zuen argazkiak gurekin partekatzearen eta horrelako album ederra sortu izanagatik. Eta nola ez, zorionak Markel Bazanbideri!!



XVI. argazki lehiaketako irabazlea. Markel Bazanbide-ren "maldan gora" argazkia